

## AKTA

### Udalaren Ohiko Osoko Bilkura

**ORGANOA:** Udalbatza  
**DEIALDIA:** Lehenengoa  
**EGUNA:** 2019-04-11 (02)  
**ORDUA:** 19:00 – 20:00  
**LEKUA:** Markina-Xemeingo Udaletxeko bilkura aretoan.

#### **BERTARATUAK:**

Alkatea: Juan Jose Txurruka Txurruka (BILDU)

Zinegotziak: Aitor Odiaga Garate (EH BILDU)  
Josune Baskaran Etxeberria (EH BILDU)  
Joseba Iraolagoitia Martinez (EH BILDU)  
Iratxe Lasa Arana (EH BILDU)  
Isabel Mandiola Zuazo (EH BILDU)  
Andoni Malaxetxebarria Kaltzakorta (EAJ/PNV)  
Alex Aretxabaleta Egia (EAJ/PNV)  
Ainara Gandiaga Longarte (EAJ/PNV)  
Luis Mari Malaxetxebarria Elordi (EAJ/PNV)

Idazkari eta kontu-hartzailea: Iratxe Rementeria Otxandio

Bertaratu ezina arrazoitu du: Sorkunde Maguregi Maguregi (EAJ/PNV)

#### **AZTERGAIAK:**

- 1.- Aurreko bilkurako akta onartzea.
- 2.- 2018 urteko aurrekontuaren likidazioaren berri eman.
- 3.- 2018 urteko Kontu Orokorra onartzea.
- 4.- Geldikinen eransketa eta kreditu-aldaketak.
- 5.- Plazakola auzoko espaloiarene lagapena onartzea.
- 6.- Udaleko Giza Baliabideen Plan Estrategikoa.
- 7.- Zelaibarriko obra.
- 8.- “Markina-Xemeingo Ongi Etorri Errefuxiatuak” elkarteak aurkeztutako mozioa.
- 9.- Zinegotzien galderak.

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) [udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren Legearekin bat etorrira, jasota utzi nahi da behar-beharrezkoa den testua baino ez dela aktan jaso. Bilkuran izandako eztabaida guztien xehetasunak grabatu egin dira eta grabazioa dokumentuaren parte izango da izango, soinu-artxibo gisa.

### **1.- AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.**

2019 – 00015 KODEA

Aho batez onartu da 2019ko otsailaren 2ko ohiko Osoko Bilkurako akta.

### **2.- 2018 URTEKO AURREKONTU LIKIDAZIOAREN BERRI EMAN.**

3105 – 2018/23 KODEA

2018 urteko aurrekontu likidazioa onartu izanaren berri ematen da:

- 2018ko abenduaren 31an fondo likidoa: 3.144.527,21 euro.
- 2018ko abenduaren 31an zor bizia: 547.549,72 euro.
- Aurrekontu-emaizta doitu: 1.172.344,28 euro.
- Erasandako geldikin likidoa: 837.740,26 euro.
  - Bide publikoen mantentze eta kontserbazioa, 3.689,00 euro.
  - Oxilaingo presa errekuaratzeko diru-laguntza, 19.911,84 euro.
  - Udal pilotalekura eta kultur aretora sartzeko igogailuaren instalaziora diru-laguntza, 25.812,50 euro.
  - Barinaga auzoko elkartean arrapala egitea, 17.448,33 euro.
  - Irargarki taula elektronikoa erosteko diru-laguntza, 3.396,00 euro.
  - Udal planeamenduan genero ikuspegiaren txertaketarako diru-laguntza, 10.350,00 euro.
  - Arretxinaga 22an igeltserotza lanak, 46.852,80 euro.
  - Zelaibarriko obraren amaierarako, 710.279,79 euro.
- Diruzaintzako geldikin likidoa: 2.358.435,73 euro.
- Aurreko ekitaldian hartutako hainbat konpromisu, adjudikazio saldo (AD) edota bestelako hainbat gastu existitzen dira, nahiz eta oraindik ez diren esleitu aurrera eramateko intentzioa dago eta diruzaintza nagusiko geldikin likidoaren bitartez finantzatu dira, ondorengo zenbatekoekin:
  - Arretxinaga:
    - Urre SA: 151.001,74 euro (igeltserotza lanak, honetarako erasandako diruzaintza geldikinean erantsi den diru-laguntza dago).

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) [udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)

- Ezenarro arotzeria: 40.158,27 euro.
  - Ramos eraikuntzak: 26.179,20 euro.
  - Argi Indar: 30.629,00 euro.
  - Aerotermia: 48.227,21 euro.
  - Udal pilotalekura eta kultur aretora igogailua: 73.219,22 euro (Ulahi, Orona eta obra zuzendaritza, honetarako ere erasandako diru-laguntza dago).
- Barinaga – arrapala: 10.247,43 euro, honetarako ere erasandako diru-laguntza dago.
  - Iragakari taula elektronikoa: 6.876,90 euro, honen erosketarako ere erasandako diru-laguntza ekonomikoa dago.
  - Planeamenduan genero ikuspegiaren txertaketa: 3.565,00 euro.

Beraz, 2019 urteko gastuetarako erabilgarri dagoen geldikina ondorengoa da: 1.968.331,86 euro.

Horrez gain, 2018ko abenduaren 31an zor biziak duen ehunekoa ikusita ez da beharrezkoa superabitaren zati bat zorraren amortizaziora bideratzea.

Udalbatzak azaldutakoa ikusita aho batez ondorengoa onartzen du:

- 1) 2018 urteko aurrekontu-likidazioa kontuan hartzea eta espedientearen igorpena agintzea Bizkaiko Foru Aldundiak indarrean duen arautegia betearaziz.
- 2) Erabaki honen ziurtagiria egitea, espedientearen jasota gelditzeko.

### **3.- 2018 URTEKO KONTU OROKORRA ONARTZEA.**

3105 – 2018/23 KODEA

Bizkaiko Foru Aldundiaren 139/2015 Foru Dekretuak, uztailaren 28koak, Bizkaiko toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duenak, xedatzen duenez, urteko kontuek ondokoa hartzen dute barne: balantzea, ondarearen emaitza ekonomikoaren kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, diru-fluxuen egoera-orria, aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria eta memoria. Dokumentu horiek batasun bat osatzen dute, argitasunez idatzi behar dira, eta ondarearen, egoera finantzarioaren, ondarearen emaitza ekonomikoaren eta erakundearen aurrekontuaren gauzatzearen irudi fidela erakutsi behar dute, kontu-plan honekin bat etorritik.

Toki erakundearen urteko orri eta kontuen berri hurrengo ekitaldiko apirilaren 30a baino lehen emango du udalburuak.

Udalburuak gertutako Kontu Orokorra maiatzaren 15a baino lehen jarri behar da toki erakundeko kontuen batzorde bereziaren onespenerako.

Kontu Orokorra, aurreko idatz zatian aipatutako batzorde bereziaren txostenarekin batera, jendaurrera azalduko da 15 egunetan; epealdi horretan interesatuek erreklamazioak, zalantzak zein oharrak aurkeztu ahal izango dituzte. Batzorde bereziak aztertu egingo ditu eta beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen guztiak egin ondoren, beste txosten bat emango du.

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) [udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)

Batzorde bereziaren txostenekin eta aurkeztutako erreklamazio eta zalantzekin batera, Kontu Orokorra udalbatzaren onespenerako jarriko da, eta bidezkoa bada uztailaren 31 baino lehen onetsiko da.

Toki erakundeek behar bezala onetsitako Kontu Orokorren berri emango dio Herri Kontuen Euskal Epaitegiari”.

Udalbatzarrak, azaldutakoak aztertu eta gero eta adierazitako izapide guztiak bete ondoren, hauxe erabaki du aho batez:

- 1) 2018ko Kontu Orokorra onartzea.
- 2) Ekonomia Sailari erabakiaren berri ematea.
- 3) Erabakia eta espedienteko gainerako dokumentazioa Herri Kontuen Euskal Epaitegiari igortzea.

#### **4.- GELDIKINEN ERANSKETA ETA KREDITU-ALDAKETAK.**

2019 – 00022 KODEA

1 zenbakidun aldaketa onartzearen berri ematea eta 2 zenbakia duen aldaketa Udalbatzak onartzea proposatzen da:

**1. kreditu aldaketa:** aurreko ekitaldian pendiente gelditu ziren adjudikazioak dira. Aldaketa martxoaren 13ko data duen Alkate Dekretuarekin onartu da eta martxoaren 15ean egin zen batzordean honen berri eman zen. Honen berri ematen da eta bere finantzaketarako diruzaintzako geldikin likidoa erabiltzen denean, gainerakoa afektatutako geldikina izanik, ikuskaritzaren txostena egin behar izaten da. Aipatutako aldaketa ondoren zehazten dena da:

**1510 60100\_Hirigintza.** Urbanizazio eta azpiegitura\_612.457,48 euro\_Zelaibarri

**1510 60100\_Hirigintza.** Urbanizazio eta azpiegitura\_16.850,07 euro\_Zelaibarri. Obra zuzendaritza

**3332 62200\_Arretxinaga.** Edifizio eta bestelako eraikinak\_197.854,54 euro\_Arretxinagan igeltserotza lanak

**3421 62200\_Frontoia.** Edifizio eta bestelako eraikinak\_48.341,89 euro\_Frontoi eta kultura aretoan igogailua jartzea eta obra-zuzendaritza

**3330 62200\_Kultura aretoa.** Edifizio eta bestelako eraikinak\_48.341,89 euro

**3421 62200\_Frontoia.** Edifizio eta bestelako eraikinak\_1.173,92 euro

**3330 62200\_Kultura aretoa.** Edifizio eta bestelako eraikinak\_1.173,92 euro

**3332 62200\_Arretxinaga.** Edifizio eta bestelako eraikinak\_40.158,27 euro\_Arotzeria lanak Arretxinagan

**3332 62200\_Arretxinaga.** Edifizio eta bestelako eraikinak\_26.179,20 euro\_Arretxinagan hainbat lan

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) [udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)

**3332 62200**\_Arretxinaga. Edifizio eta bestelako eraikinak\_30.629,00 euro\_Arretxinagan elektrizitate lanak

**GASTUAK 1.023.160,18 euro**

**2. kreditu aldaketa:** kreditu gehigarri bat da, toki-erakundearen funtzionamendu normala aurrera eramateko beharrezkoa dena. Diruzaintzako geldikin likidoarekin finantziatzen da. Horren berri jarraian ematen da:

**3230 22799**\_Bekobenta eskola. Kanpoko lanak\_1.124,25 euro\_Bekobentako rokodromoa muntatzea

**3420 21100**\_Kiroldegia. Edifizio eta bestelako eraikinak\_900,00 euro\_Kiroldegiko kristalak

**9200 22709**\_Zerbitzu orokorrak. Entitatearen aldeko diru-bilketa zerbitzua\_40.000,00 euro\_Ikuskaritza eramatearen ordainketa

**1510 60100**\_Hirigintza.Urbanizazio eta azpiegitura\_80.972,24 euro\_Zelaibarriko obra (afektatua)

**4140 62200**\_Landa Garapena. Edifizioak eta bestelako eraikinak\_27.695,76 euro\_Barinaga elkarteko arrapala (17.448,33 euroko diru-laguntza)

**3360 22799**\_Ondare historiko-artistikoaren babesa. Kanpoko lanak\_19.911,84 euro\_Oxilaingo presa balorean jartzeko

**9200 62600**\_Zerbitzu orokorrak. Informazio prozesuetarako ekipamendua\_10.272,90 euro\_Udaletxean jartzeko informazio pantaila (3.396,00€ko diru-laguntza ere badago)

**1510 64200**\_Hirigintza. Planeamendua\_13.915,00 euro\_Genero ikuspegia planeamenduan eta hirigintzan (10.350,00€ko diru-laguntza ere badago)

**3360 21100**\_Ondare historiko-artistikoaren babesa. Edifizioak\_3.333,21 euro\_Iturretako ermitako kanaloia eta bajanteak konpontzea

**3410 48000**\_Kirola sustatu eta bultzatu. Familiei\_5.000,00 euro\_ Beka kirola

**4540 21000**\_Auzo bideak. Azpiegitura eta ondasun naturalak\_3.689,00 euro - laz kanon kontzeptuan batutako dirua bideen aprobetxamenduagatik

**2313 62200**\_Gazteria. Edifizio eta bestelako eraikinak\_29.506,09 euro\_Gaztelekuko obrak

**3420 22799**\_Kiroldegia. Kanpoko lanak\_19.337,14 euro\_Kudeaketa kanonaren %5eko igoera

**1330 22799**\_Zirkulazio eta aparkalekuen antolamendua. Kanpoko lanak\_6.482,14 euro\_Brigada eta udaltzaingoaren berregituraketa edo antolaketa berria bilatzeko aholkularitza

**1510 22799**\_Hirigintza.Kanpoko lanak\_5.185,71 euro - Brigada eta udaltzaingoaren berregituraketa edo antolaketa berria bilatzeko aholkularitza

**1630 22799**\_Kale-garbiketa. Kanpoko lanak\_2.592,86 euro\_Brigada eta udaltzaingoaren berregituraketa edo antolaketa berria bilatzeko aholkularitza

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) [udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)

- 1710 22799**\_Parke eta lorategiak. Kanpoko lanak\_1.296,43 euro\_ Brigada eta udaltzaingoaren berregituraketa edo antolaketa berria bilatzeko aholkularitza
- 1640 22799**\_Hilerria. Kanpoko lanak\_1.296,43 euro\_ Brigada eta udaltzaingoaren berregituraketa edo antolaketa berria bilatzeko aholkularitza
- 1623 22799**\_Hondakinen tratamendua. Kanpoko lanak\_1.296,43 euro\_Brigada eta udaltzaingoaren berregituraketa edo antolaketa berria bilatzeko aholkularitza
- 1533 62501**\_Herri altzariak. Altzari eta bestelakoak\_6.000,00 euro
- 3360 22199**\_Ondare historiko-artistikoaren babesa. Bestelako gastuak\_2.264,75 euro\_ Arretxinagako ermitako argiztapenerako fokoak,....
- 1621 22300**\_Hondakinen bilketa. Garraioa\_2.365,00 euro\_2017an Santixa baseritik pintura poteak kentzea
- 3332 62200**\_Arretxinaga. Edifizio eta bestelako eraikinak\_396.212,99 euro\_Obra zuzendaritza, segurtasun koodinatzailea, su-itxalgailuak, aerotermia, domotika, arotzeria
- 4140 48100**\_Landa Garapena. Irabazi asmorik gabeko elkarteei\_4.449,67 euro\_ Bidezidorrak garbitzeko 4 langileen kontratazioagatik
- 1621 42100**\_Hondakinen bilketa. Mankomunitatea eta partzuergoak\_13.063,09 euro\_ 2019ko aportazioak Mankomunitatera
- 9420 42100**\_Mankomunitateari transferentziak. Mankomunitatea\_15.573,92 euro
- 2313 42100**\_Gazteria. Mankomunitatea eta partzuergoak\_1.055,40 euro
- 2310 42100**\_Ongizatea. Mankomunitate eta partzuergoak\_59.361,08 euro
- 1330 12000**\_Zirkulazio eta aparkalekuen antolamendua. Nomina\_115.000,00 euro\_Cap – brigadako koordinatzailea, elektrizista, administraria
- 1510 20500**\_Hirigintza. Informazio prozesuetarako ekipamendua\_8.595,11 euro\_Presto eta Autocad programak hirigintzako teknikoentzako
- 9200 16103**\_Zerbitzu orokorrak. Jubilazio aurreratuagatik kalteordaina\_46.177,96 euro\_ langile baten kalteordaina jubilazioagatik – udalhitz
- 3340 22799**\_Kulturaren sustapena. Kanpoko lanak\_813,00 euro \_Musika Haizeak 2019 ekitaldietan aurkezle lanak (150,00 € saioko) - organoa afinatzea (363,00 € )
- 3380 48100**\_Jaiak eta ospakizunak. Irabazi asmorik gabeko elkarteei diru-laguntza\_250,00 euro \_San Silbestre 2018 lasterketarako diru-laguntza
- 9200 62600**\_Zerbitzu orokorrak. Informazio prozesuetarako ekipamendua\_18.000,00 euro\_ herritarren kudeaketak egiteko Kajeroa
- 1510 60100**\_Hirigintza. Urbanizazio eta azpiegiturak\_48.400,00 euro\_Alde-zaharra irisgarri bihurtzeko proiektua
- 3340 22300**\_Kulturaren sustapena. Garraioak\_2.970,00 euro\_Zerutxu dantza taldea

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) [udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)

**4310 48100\_Merkataritza.** Irabazi asmorik gabeko elkarteei\_1.000,00 euro\_Hemen be bai elkarteari diru-laguntza herriko komertzioa suspertzeko lanagatik

**1630 62301\_Kale-garbiketa.** Makinaria\_1.500,00 euro\_Kale-garbiketarako bigarren eskuko Karcher makina

**1710 22799\_Parke eta lorategiak.** Kanpoko lanak\_4.053,50 euro\_Bekobentako parkeko zuhaitzen balorazioa eta inausketa

**3332 21100\_Arretxinaga.** Edifizio eta bestelako eraikinak\_5.733,11 euro\_Xilofagoen kontrako tratamendua Arretxinagan.

**3340 22606\_Kulturaren sustapena\_360,00 euro\_Sagartu antzerkia**

**3421 62501\_Frontoia.** Altzariak\_4.551,59 euro\_Bideo pantalla

**1330 22799\_Aparkaleku eta zirkulaziorako antolamentua\_25.000,00 euro\_Seinalizazio horizontala**

**1510 60100\_Hirigintza.** Urbanizazio eta azpiegiturak\_4.000,00 euro\_Iruzubieta auzoan espaloia egiteko proiektua

### **GASTUAK 1.060.557,60 euro**

Finantza-iturritzat diruzaintza nagusiko soberakin erabiltzen denean eta ikusita zorraren helburua betetzen dela, idazkari eta kontu-hartzaileak txosten bat egin beharko du finantzatutako gastuek udalaren finantza-jasangarritasuna arriskuan jartzen ez dutela azaltzeko. Hori horrela, gastu hauek ez dira kontuan hartuko ez defizitaren helburua baloratzeko ez gastu-araua betetzeko. Txosten hau Osoko Bilkurara ekarri da Udalbatza jakinaren gainean egoteko eta, ondoren, Bizkaiko Foru Aldundira bidaliko da Osoko Bilkuraren aktarekin batera.

Azalduko guztia aztertu eta gero, Udalbatzak hauxe erabaki du aho batez:

- 1) Aurkeztutako kreditu aldaketak kontuan hartzea eta 2. kreditu-aldaketari eta esku-hartze txostenari hasierako onespina ematea adosten da. Bizkaiko Aldizkari Ofizialera dagozkien iragarkiak bidaltzea, betiere indarrean dagoen arautegiaren arabera.
- 2) Erabakia Arlo Ekonomikoari jakinarazteko agindua ematea, espedientean jaso dezan.
- 3) Erabakia aditzera ematea Bizkaiko Foru Aldundiari, kontu-hartzaileak idatzitako txostenarekin batera.

### **5.- PLAZAKOLA AUZOKO ESPALOIEN LAGAPENA ONARTZEA.**

2019 – 00126 KODEA

Bizkaiko Foru Aldundiak bidalitako lankidetzaren edukia aho batez onartzeari ekiten zaio, zehazki, BI-633 errepedean Durangotik Ondarroara (Trabakuatik) bitarteko Pks 52+830, 53+050 eta Pks 53+560 eta 53+660 tartetan espaloiak eraikitzeke lanen gauzatzea.

Udalari dagokio eraikiko diren espaloien titulartasuna onartzea eta beraien mantentze eta kontserbazio egokiaren ardura.

Aipatutako hitzarmena Alkateak sinatuko du eta Foru Entitateari bidaliko zaio.

## **6.- UDALEKO GIZA BALIABIDEEN PLAN ESTRATEGIKOA.**

2019 – 00125 KODEA

Markina-Xemeingo Udalbatzak aho batez onartzen du Udaleko Giza Baliabideen Plan Estrategikoa, bere edukia ondoren azaltzen dena.

Giza baliabideen plan estrategikoak haxe du helburu: udal plantilla gaztetzea eta giza baliabideak birbanatzea, hala nola langile publikoak tarteka erretiroa hartu ahal izan dezaten aldeko izango dituzten baldintza ekonomikoetan.

Erabaki honek indarreko araudia hartzen du oinarri eta, horrenbestez, aplikagarri izango zaie funtzionarioei ezezik udaleko lan-legepeko beharginei ere, beti ere Gizarte Asegurantzako Araubide Orokorrak jubilazioko pentsioa jasotzeko ezarritako baldintzak betez gero.

Plan honen ondorioetarako definitu egin behar dira jarraian adieraziko diren kontzeptuak:

- Adinagatik behar baino lehenago hartutako jubilazioa: koefiziente murriztailea eta konpentsazio konputagarriak aplikatu eta gero, gizarte segurantzak kolektibo bakoitzarentzat ezarritako ohiko edo ezinbesteko adinera orduko hartzen dena.
- Urterokoa: urteroko zenbatekoa zehazteko, gutxienez urtebetean bete izandako lanpostuari eta horri egokitutako dedikazio erregimenari dagozkion ordainsariak hartuko dira aintzat, antzintasuna barne.
- Gutxieneko antzintasuna: behar baino lehenagoko jubilazioaren ondorioetarako, Markina-Xemeingo udalean lanean egin izandako aldia da, jubilazioa hartu aurreko bost urtekoa gutxienez eta azken hamabost urteetan gutxienez hamar urte behar egin izanda.
- Jubilazioko pizgarriak jasotzeko ezinbesteko baldintza: ordaindutako beste edozein jarduera egiteari uko egitea. Hori egiaztatzeko eskatu ahalko zaizkie, eta derrigorrez aurkeztu beharko dituzte, Gizarte Segurantzarekiko eta Ogasunarekiko euren lan egoeraren inguruko txostenak. Informazio hori aurkezteko beharra hautsiz gero, kalteordainaren onuradunak oso-osorik itzuli beharko dio udalari.
- Bateriaezintasunak: behar baino lehenagoko jubilazioagatik kalteordaina jasotzea ez da bateragarria Gizarte Segurantzak edo kasuan-kasuko mutualitateak aitor dezakeen edozein modalitateko ezgaitasunik jasotzearekin. Hau da, ezgaitasun aitorpenetik ondorioztatzen bada langileak behin betiko baja hartua duela jubilatu aurretik.

Horrela gertatuko balitz, onuradunak udalari itzuli beharko lioke jasotako prestazioa. Bateriaezina da, orobat, beste edozein motatako jubilazio modalitaterekin, jubilazio partziala zein borondatezko jubilazioa izan.

**Plana indarrean sartzea eta indarrean egotea:** Plan hau indarrean sartuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean eta indarrean egoten jarraituko du harik eta bestelako erabakirik hartu arte.

**Sustatutako jubilaziorako arauak eta zenbatekoak:** Markina-Xemeingo udal enplegatuek, baldin eta plan honek indarrean dagoen bitartean behar egin badaude eta unean-uneko ohiko jubilazioko legezko adinera heltzeko lau urte geratzen bazaizkie, dagokiena baino lehenago hartu ahalko dute jubilazio indemnitatua edota enplegatu publiko izateari uko egitearen ondoriozko



Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) [udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)

kalteordaina, beti ere gizarte segurantzak borondatezko jubilazioko pentsioa jasotzeko ezarritako unean-uneko eskakizunak betetzen badituzte.

Jubilaziorako aurreikusitako eguna baino hiru hilabete lehenago egin beharko da eskaria, behar baino lehenagoko borondatezko jubilazioari dagokionez, Markina-Xemeingo udalaren zerbitzuplean lan egiten ari diren beharginen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmenean xedatutako baldintza eta kondizioetan egin ere.

Hauexek dira, plan estrategiko hau onartzeko orduan, jubilazioa behar baino lehenago hartzearen ondoriozko (kalteordainen) zenbatekoak. Hala ere, planak indarrean dagoen bitartean baldintzak aldatuko balira, zenbateko horiek ere aldatuko ahalko lirateke plana bera ukitu behar izan gabe.

ADINA	HILABETE KOPURUA
4 urte lehenago	27
3 urte lehenago	20
2 urte lehenago	15
Urtebete lehenago	10

Urteroko zenbatekoa kalkulatzeko orduan urteko ordainsari gordinak hartuko dira aintzat. Kalkulu horren ondorioetarako ulertuko da hilabetekoa urteko ordainsari gordin osoaren 1/14 dela. Zenbateko hori hileko hainbanatuko da eta kalteordaina aurreko eskala oinarri hartuta kalkulatu da.

**Aurrekontuko baliabideak:** Urtean-urteko aurrekontuan behar den besteko diru kopurua gordeko da plan honek eragindako betebeharrei aurre egiteko.

**Jarduketan arteko bateraezintasunak:** Plan honek eragindako onurak bateraezinak izango dira udalean indarrean dagoen hitzarmenak behar baino lehenagoko borondatezko jubilazio arloan araututako primekin. Izan ere, hitzarmenean jasotako horiek onurak indarrean egoten jarraitzen dute behar baino lehenago jubilatu nahi izan arren plan honetako neurriei heldu ezin diezaieketenentzat.

**Plan estrategiko honen arabera jasotako kalteordainen tratamendu fiskala:** 13/2013 Foru Arauak, abenduaren 5ekoak, Pertsona Fisikoen errentaren gaineko zergari buruzkoak, 9 artikuluan dioenez, zerga ordaintzetik salbuetsita egongo dira administrazio publikoek Langileen Estatutuko 51. artikuluan ezarritako arrazoietakoa bat oinarritzat hartuta giza baliabideen arloan egiten dituzten plan estrategikoetan araututako eta aitortutakoaren ondoriozko zenbatekoak, plan horiek kaleratze kolektiboekin eta kaleratze nahiz kargugabetze objektiboekin parekatuko direnez gero. Salbuetsitako kalteordaina ezingo da 180.000 eurotik gorakoa izan.

**Eskariak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa:** Eskariak, jubilatzeko adinera heldu baino hiru hilabete lehenago egin beharko dira gutxienez. Eskariarekin batera honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Gizarte Segurantzak emandako agiria, jubilazioaren ondorioetarako adina zehazten koefiziente murriztailea eta konpentsazio konputagarriak aplikatu eta gero.
- Halaber, Udalak eskaria tramitzeko bidezko iritzi dezakeen beste edozein agiri ere eskatu ahalko du eta txostenak ere eskatu ahalko ditu honako kasuak argitze aldera: kotizazio ezak, pentsioak edota gizarte segurantzarekiko balizko hitzarmenen egoera.

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean testua osorik argitaratuko da.

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) [udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)

## **7.- ZELAIBARRIKO OBRA.**

4201 – 2017/34\_Signat. 2297.1

2017. urtean Zelaibarriko urbanizazio lanak lizitaziora atera ziren. Iderraga-Ituarte 19 U.A. urbanizazioaren zati bat da. Aipatutako obra honek 1.541.660,90 euroko lizitazio aurrekontua zeukan. Guztira sei enpresa aurkeztu ziren eta prozedura irekia jarraitu zen.

Lizitazio prozesuaren ondoren Kontratazio Mahaiak gainerako esleipendunak prozesuak kanpo uztea erabaki zuen eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu ez izanagatik, eta URRE SA enpresa esleitzea erabaki zuen 1.278.759,44 euroko zenbatekoarekin.

Subjektu pasiboaren inbertsioa aukeratu zen, obra BEZ gabe fakturaturaz. Obra hau 2018ko martxoaren 15eko osoko bilkuran adjudikatu zen.

Obraren lehenengo fasea uda hasieran amaitu zen, eta momentu honetan bigarren fasea gauzatzen ari da.

Ondorengo ziurtagiria aurkezten da beraren berrespen eta onarpenerako:

- Urre SA, 133.753,61 euroko zenbatekoarekin, 8. ziurtagiria berresteko eta 169.396,13 euroko zenbatekoarekin 9. ziurtagiria onartzeko (subjektu pasiboaren inbertsioa aplikatu denez, BEZ gabe).
- Injelan SL, 8.580,93 euroko zenbatekoarekin, BEZ barne; 4. fakturaren ziurtagirira obra zuzendaritzari dagokiona.

Udalbatzak azaldutakoa aztertuta aho batez ondorengoa onartzen du:

- 1) Aurkeztutako ziurtagiria onartzea eta berrestea.
- 2) Armoka SL enpresaren (Osteko Kalea S.Coop.) ordezkariak ahoz emandako proposamen berria kontuan hartzea.
- 3) Arlo ekonomikoari akordio honen berri ematea.
- 4) Akordio hau Urre SA eta Injelan SL enpresei jakinaraztea.

## **8.- “MARKINA-XEMEINGO ONGI ETORRI ERREFUXIATUAK” ELKARTEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

2019 – 00084 KODEA

Josune Baskaran Etxebarria zinegotziak “Markina-Xemeingo Ongi Etorri Errefuxiatuak” elkarteak aurkeztutako mozioa irakurtzen du, honela dioena:

### **“ARMA SALMENTA ETA EKOIZPENAREN AURKAKO MOZIOA**

- 1- Azken urteotan Europan inoiz izandako krisi migratoriorik handiena ezagutu dugu. Siria edo Yemen bezalako herrialdeetan jasaten ari diren gerren ondorioz, biztanle asko beraien etxeak utzi eta ihes egitera behartuak izan dira.
- 2- Horren aurrean, Europak errefuxiatu horiei ongi etorri instituzionala eman ostean, mugak itxi eta milako lagun utzi ditu hondartzetan eta itsasoan hiltzen. Bere lurretan jaso dituen etorkin gehienak esparru isolatuetan kartzelaratu ditu, bertan gosez eta hotzez hiltzen utziz.

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) [udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)

- 3- *Europak eta bereziki, Estatu Espainolak izugarritzko erantzukizuna du krisi honen aurrean, estatu honetako arma fabrikak eta gobernuak baitira herrialde horietako gatazkak sortu eta armaz hornitzen dituztenak. Estatu espainola mundu mailan zazpigarren arma saltzaile handiena da. Zehazkiago esanda, ekialde hurbileko gobernuen arma saltzaile ere bada, konkretuki laugarrena mundu mailan. Ekialde Hurbileko gobernu hauek dira Siria eta Yemen bezalako herrialdeei salmenta zuzena egiteaz arduratzen direnak.*
- 4- *Nahiz eta legez araututa egon estatuko arma salmenta, ez dago benetako kontrolik honen gainean eta arma enpresek eta gobernuak irabazten dituzten diru kopuruek agerian uzten dute gerraren negozioa.*
- 5- *Aurretik esandakoaren ondorioz, ulertzen dugu gure hirietan eta herrietan sortutako armak direla gu bezalako beste leku batzuetako biztanleak hil edo euren herriak eta lurrak uztera behartzen dituztenak.*
- 6- *Ez dugu onartzen gerraren negozioa eta Markina-Xemein armagintzarik gabeko herria izatea nahi dugu. Badakigu gure herrian ECIA XEMEIN deituriko enpresak armak ekoizten dituela gerra ezberdinetarako, hauetan errugabeak diren biztanleak hiltzen dituzten mortero granadak, hain zuzen ere.*
- 7- *Ezin gara bakearen eta askatasunaren inguruan mintzatu gure herrian bertan sortzen ari direnenan gerretarako armak.*

*Guzti honen aurrean, Markina-Xemeingo errefuxiatuen aldeko eta gerraren aurkako plataformak akordio hau sinatzeko proposamena egiten dio Markina-Xemeingo Udaletxeari:*

*Markina-Xemeingo udalak:*

- *Armagintzarik gabeko herri bat nahi duela.*
- *Armagintzaren ekoizpenarekin bukatzeko beharrezkoak diren pausuak emango dituela.*
- *Publikoki azalduko duela bere jarrera eta arazoa ezagutzera emango duela.”*

Mozioa bozkatu ondoren, mozioa onartu egin da ondorengo emaitza jasoz: EH BILDU alderdiko sei aldeko botu eta EAJ/PNV alderdiko bertaratutako zinegotzien lau abstentzio botu.

## **9.- PREGUNTAS DE LOS CONCEJALES**

Ez da galderarik egon.

Goikoportala 3. 48270 Markina-Xemein. IFK P4807100E. Tlf.: 94 616 74 54 [www.markina-xemein.eus](http://www.markina-xemein.eus) [udala@markina-xemein.eus](mailto:udala@markina-xemein.eus)


ETA BESTERIK EZ AZTERTZEKO, ALKATEAK AMAITUTZAT EMAN DU BATZARRA, 20:00ETAN, ETA UDALEKO IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILE NAIZEN HONEK HAN ESAN ETA ERABAKITAKO GUZTIAREN FEDE EMAN DUT.

ALKATE-UDALBURUA,  
Juan Jose Txurruka Txurruka



markina-xemein  
udala

IDAZKARI ETA KONTU-HARTZAILEA,  
Iratxe Rementeria Otxandio



markina-xemein  
udala